

2015

INTXAURRONDO KULTUR ETXEA

donostiakultura.com

Intxaurrondo Kultur Etxea, zuzeneko kontzertuen erreferente nagusienetakoa da hirian eta 2014an abiatutako formazio, sorkuntza eta zabalkunde helburuei jarraitu zien 2015ean.

Kontzertuen harira, Intxaurrondo Kultur Etxeak, bataz beste, hilerio, hiru emanaldi eskaini zituen 2015ean. Azaroan marka guztiak hautsi ziren; zazpi kontzertu izan baitziren, eta nabarmentzekoa ere, urte hasieran **Berri Txarrak** taldeak emandako kontzerturako, sarrera guztiak lau egunetan saldu zirela.


Egia Kultur Etxean hasitako **Musikagela**, entsegu lokalen zerbitzua, Intxaurrondora iritsi zen 2015ean, eta beraz, bertako taldeek musika lokalak eskuragarri dituzte ordutegi zabalean. Bost gela intsonorizatu ziren, eta noiz behinkako taldeek zein talde erresidenteek jotzeko aukera izan dute.

Musikari lotuta, aipamen berezia merezi du **Musika Egonaldia** egitasmoak. Auzoko gazteekin elkarlanean hainbat musikarik sortze prozesuan sakondu eta horren inguruan lan egiteko aukera ezin hobea eskaini zuten. Izan ere, auzoko eskolak eta kultur etxeko aretoan sortze lanetan ari ziren artistak harremanetan jarri ziren. Joseba B. Lenoir izan zen 2015ean eta 2016an segida izango du egitasmoak. Auzoko eskoletan oso gustura azaldu ziren programarekin, beraz, garatzen jarraituko da.

Intxaurrondo Kultur Etxea **Olatu Talka** jaialdiaren parte izan zen 2015ean, hainbat egitasmo bere baitan edota auzoan hartuz. Hala nola, Bidebietan Gaztelekuko gazteek ekoiztako antzerkia eskaini zen, eta baita Plus 55 programaren eskutik sortutako antzezlan ere; biak, Normahi plazan.

Intxaurrondo Kultur Etxearen programazioaren beste egitasmo arrakastatsua **Ibiltariaren Astea** da, eta 2015ean XXI. aldia izan du. Munduko hainbat herrialde ezagutzeko aukera ezin hobea ematen zuen zikloak. Gainera, berriro ikusi zen auzoan guztiz errotuta dagoela eta auzotarren lankidetzari esker burutzen dela.

Antzerkia Kalean jarduerari lotuta, sei antzezlan izan ziren 2015ean, Intxaurrondoko kaleetan giro aparta sortuz. Oso jarduera arrakastatsua izan zen eta eragileekin elkar lanean landutako proposamenez gozatzeko aukera izango dugu hurrengoan ere.



Berri Txarrak



Musikagela



Olatu Talka

Bestetik, badira, urtez urtez aberasten doazen hainbat jarduera eta auzoko eragileen eta elkarten lanari esker burutzen direnak, tartean, **Emakumeen Astea** edota **Extremadurako Kultur Astea**.

Azpimarratzekoa da, 2015ean **IV. Intxaurrondo Eguna** ospatu zela, Intxaurrondo Zaharrean. Intxaurrondo oso auzo zabala da eta egitasmo honen helburua, hain hedatuta dagoen auzoaren alde ezberdinak batzea da. Hortaz, goikoak behera jaitea eta alderantziz, behekoak gora joatea. Intxaurrondo Eguna antolatzerakoan ezinbestekoa da auzotarren lankidetzeta eta konplizitatea, eta jarduerak izan duen harrera ona ikusita, aurrera jarraitzeko asmoa sendotu egin da.

Ikastaroen atalean nabarmentzekoa da, oso erantzun ona jaso zuela egonkortutako eskaintzak.

Intxaurrondoko Liburutegiaren espezializazioa komikia da eta ildo horretan, eskaintza gaurkotua izatea lortu da. Bertako komiki bilduma oso erakargarria da eta urtetik urtera handitzen joatea da helburua, Donostian erreferente bihurtuz. Komikiarenganako erakarpena sustatzeko literatur solasaldiez gain, komiki solasaldiak ere egin ziren ikasturtean zehar.

Bestetik, liburutegiko bisitari kopuruari eutsi zitzaion 2015ean eta mailegu zerbitzua indartu egin zen.



Irrien Lagunak



Ibiltarien astea

DATUAK

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	157	16.655
Antzerkia	16	1.178
Antzerkia	8	680
Musika	28	8.611
Erakusketak	5	1.250
Elkarteen bilerak eta jarduerak	263	10.538
Aretoen alokairuak	3	629
Liburutegiko jarduerak	31	667
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	385	92.089
Liburutegiko bisitariak		80.723
Haurtxokoa	173	3.421
Gaztelekua	198	6.911
Plus 55	14	1.034

**PRESTAKUNTZA
EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	13	134	5	39	8	95
2014/2015 ikastaroak	0	0	0	0	0	0
2015/2016 ikastaroak	13	134	5	39	8	95

**PRESTAKUNTZA
GIZONAK**

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	13	191	5	18	8	34
2014/2015 ikastaroak	0	0	0	0	0	0
2015/2016 ikastaroak	13	191	5	18	8	34

Bisitariak GUZTIRA: **173.431**